

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 789/2021 Erabakia, abenduaren 21ekoa. Onestea Lurralde Historikoko toki erakundeen zerga arauak eteteko luzapena, salbuespenez eta 2022rako soilik**

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsiak, 48. artikuluan honako hauek ezartzen ditu, besteak beste: Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek beren eskumenak garatu eta gauzatzeko zerga eta finantza autonomiaren printzipioa eta Estatuarekiko koordinazioaren eta lankidetzaren printzipioa, aurrekontu egonkortasunaren arloan. Artikulu horrek ezartzen du, halaber, toki erakundeen arloan Estatuak une bakoitzean dituen finantza tutoretzako ahalmenak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunei dagozkiela.

Gainera, lege horren beraren 62.b) artikuluan, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoari esleitzen zaio aurrekontu egonkortasunaren arloko lankidetzeta eta koordinazio konpromisoak adosteko eginkizuna.

Bestalde, Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Iraunkortasunaren apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren azken xedapenetako hirugarrenaren bigarren apartatuak xedatzen du lege hori Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu behar dela, haren foru araubidearen arabera eta Ekonomia Itunaren Legean xedatutakoa betez.

Horrez gain, urriaren 7ko 4/2021 Legearen (baliabideak banatzeko eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa) bigarren xedapen gehigarriak ezartzen du Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak erabakiko dituela Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoen aurrekontu egonkortasuneko helburuak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 62. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz hartzen diren konpromisoen esparruan.

Araudi horretan oinarrituta, Arabako Lurralde Historikoak abenduaren 13ko 38/2013 Foru Araua eman zuen, Arabako toki erakundeen aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruz, arlo horretan dituen eskumenen oinarritzko araudia garatzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 9ko 641/2020 Erabakiaren bidez, eten egin ziren, salbuespenez eta 2020. eta 2021. urteetarako soilik, Arabako toki erakundeen zerga arauak. Horrek esan nahi du ondoriorik gabe utzi behar direla aurrekontu egonkortasunaren eta zor publikoaren alorreko helburuak, eta ez zaiela gastu araua aplikatu behar aipatutako urteetan.

2021eko ekainaren 2an Europako Batzordeak iragarri zuen 2022an Egonkortasun eta Hazkunderako Itunaren babes klausula orokorrari eutsiko ziola, administrazio publikoei beharrezko malgutasuna emateko COVID-19aren pandemiaren aurka borrokatzeko, eta Espainiako Gobernuak 2022. urterako zerga arauak etetea erabaki zuen, 2020. eta 2021. urteetarako egin zuen bezala. 2021eko irailaren 13an, Diputatuen Kongresuak erabaki hori onetsi zuen.

2021eko uztailearen 29ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2022rako aurrekontu egonkortasuneko eta finantza iraunkortasuneko helburuak adostu zituen, eta defizit eta zor publikoko helburu espezifikoak ezarri zituen Eusko Jaurlaritzarentzako eta baterako defizit helburu bat foru aldundientzako.

Horregatik guztiagatik, bidezkoa da 2022ko ekitaldirako luzatzea Arabako toki erakundeen zerga arauen etetea. Neurri hauen berri eman zaio Toki Administrazioiko eta Finantzetako Lurralde Kontseiluari, 2021eko abenduaren 28ko bilkuran.

Horregatik, Lurralde Orekaren Sailaren titularra ez dagoenez haren eginkizunetan diharduen Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak proposatuta, bat etorritz diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuak xedatutakoarekin, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau:

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Luzatzea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen zerga arauen etetea, salbuespenez eta 2022rako soilik. Horrek esan nahi du ondoriorik gabe utzi behar direla aurrerontu egonkortasunaren eta zor publikoaren alorreko helburuak, eta ez zaiela gastu araua aplikatu behar 2022ko ekitaldian.

Bigarrena. Foru erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 21a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua ez dagoelako, jarduneko diputatua*

**EMILIO SOLA BALLOJERA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

**JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**